




Jone
Larrinaga
Dañobeitia

Irati
Erkizia
Otegi



HISTORIAN EMAKUMEAK



Doinua:

*Kantuz sortu naiz eta II
Hamarreko txikia*

Historiako pertsonaia ezagunenak erregeak, konkistatzaileak, agintariak izan dira. Gizakiak eta lurra zaindu dituztenak ez dira pasatu historiara. Emakumeak ere ez dira ageri. Gizartearen erdia ziren.

Emakume indartsu,
ausart, **harrigarri**,
oztopoak gainditzen
duena **igarri**.
Plazaratzeko egon
zaretenez **larri**,
maiz isilaraziak,
ahaztuak **sarri**...
gaur nahi zintuzketegu
gogora **ekarri**.

MARIE GOUZE, "OLYMPIA"
(Frantzia, 1748-1793)
Idazlea eta politikaria



Marie Gouze "Olympia"
ausarta zen **zinez**
mundua bete nahian
justu ta **berdinez**
gillotina zuela
ondorio **jakinez**
emakumeen defentsan
iraultza **eginez**
askatasun egarriz
ibili zen **oinez**.

Nellie Blyk munduari
buelta eman **di-da!**
Bizipena hitzekin
zekarren **argira**
horrela eman zion
hiritik **hirira**
emakumezko baten
larrutik **begira**
munduari buruzko
ideiari **birra**.

NELLIE BLY
(Estatu Batuak, 1864-1922)
Ikerketa kazetaria, idazlea, bidaiaria



MARIE CURIE
(Polonia 1867-Frantzia 1934)
Fisikan eta Kimikan Nobel sariduna



Marie Curie jaiotzez Marie Sklodowska, senarren abizenak hartuta datoz ta! Nahiz bere sorterritik larri egin ospa klandestinitatean ikasiaz ozta fisika ta kimikan merituz zen josta.

Frida Kahlok aukera bihurtuaz gaitza, margotzea zen minak arintzeko giltza. Ohetik bete zuen loreez sasitza, gizonen mundu hartan hartu zuen hitza bere koloreekin marraztuz bizitza.

FRIDA KAHLO
(Mexiko, 1907-1954)
Margolaria eta poeta



ROSA PARKS
(Estatu Batuak, 1913-2005)
Jostuna eta aktibista



Estatu Batuetan sasi arteko lore Rosa Parks eskubide defentsan hain noble, egia ez zuenez bere baitan gorde azala beltza eta ukabila more... Sufritu behar izan zuen berak doble.

Haize-garbigailuak, periskopioak komunikazio tresna inalanbrikoak berogailuak bertan dituzten autoak xiringak, hozkailuak... ta esan gabekoak denak emakumeek asmatutakoak!

Hamaika emakume hamaika aldarte isilarazitako milaka pasarte beraiekin iraultza txiki bat dakarte egin ditzagun gure ipuinaren parte historiaren zati bilakatu arte.